

GIZARTE-POLITIKAKO ARLOAN DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA.
BASAURIKO UDALA 2026

Deialdi hau argitaratzen dugu Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren babesean, zeina deialdiaren oinarri arautzailea baita. Ordenantza hori 2024ko maiatzaren 30eko osoko bilkuran onetsi, eta 2024ko abuztuaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

1. Artikulua. - Eremuak, dirulaguntza-lerroak eta diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

Erakunde interesdunek zein eremu eta dirulaguntza-lerrotan aurkeztu ahal izango dituzten eskabideak, diruz lagun daitezkeen hainbat kontzeptutan banakatuta daude. Dirulaguntza-eremu eta lerro bakoitzerako xedapenak eranskin gisa agertzen dira. Honako hauek dira:

EREMUA	KONTZEPTUA
GIZARTE EKINTZA	DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ETA GAIXO KRONIKOEN ELKARTEAK
ZAHARTZAROA	BASAURIKO ADINEKOEN ELKARTEAK

2. Artikulua.- Dirulaguntzak emateko prozedura

Deitutako dirulaguntzak norgehiagoka prozeduraren bitartez emango dira, lerro bakoitzean jasotako balioztapen-irizpideei eta Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren xedapenei jarraituta.

Halako prozeduran, dirulaguntzak emateko, aurkeztutako eskaerak alderatu, eta horien arteko lehentasuna finkatuko da, adierazitako irizpideen arabera. Gero, dirulaguntza emango zaie deialdian jasotako aurrekontu-zuzkidura gainditu gabe balioztapen handiena lortu dutenei.

Organo eskudunak hainbanatu egingo du deialdira bideratutako zenbateko osoa, eskaera guztiei erantzuteko.

Edonola ere, dirulaguntza emango da baldin eta ebazpena emateko unean kreditu egokia eta behar bestekoa badago.

3. Artikulua.- Dirulaguntzen instrukzioa egin, eta horiei buruzko ebazpena emateko organo eskudunak

Gizarte-politika Arloari (Gizarte-ekintza Atala) dagokio prozeduraren instrukzioa.

Alkatetzarena izango da ebazteko eskumena, Gizarte-ekintzako Informazio Batzordearen aurretzako, nahitaezko eta loteslea ez den irizpenarekin.

4. Artikulua.- Ebazteko eta jakinarazteko epea

Sei hilabetekoa izango da eskaerak ebazteko eta erakunde eskatzaileei jakinarazpena egiteko gehienezko epea, deialdi hau argitaratzen denetik zenbatzen hasita; hala egingo da onetsitako zein ezetsitako diru-laguntzekin. Ebazpenak, bestalde, amaitu egingo du bide administratiboa. Ebazpena jakinaraziko da eskabidean adierazitako tokian, posta ziurtatuaren bidez edo bitarteko elektronikoen bidez.

5. Artikulua.- Eskaerak aurkezteko epea eta modua

Eskabideak aurkezteko epea 2026ko irailaren 15ean amaituko da.

Deialdiei buruzko informazio guztia eskuragarri egongo da udal webgunean (www.basauri.eus), eta bertatik deskargatu ahal izango dira deialdi bakoitzari dagozkion ereduak.

Eskabideak aurkeztu ahalko dira Basauriko Udaleko Egoitz Elektronikoa, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuko bulegoetan, ohiko ordutegietan, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak aurreikusitako tokietan.

Era berean, eskaera guztietan aintzat hartu beharko da dirulaguntzetatik eta beste iturrietatik lortutako finantziazioak, guztira, ezingo duela gainditu aurkeztutako programaren kostua.

Udalak egoki irizitako argibideak eskatu ahal izango dizkie erakunde eskatzaileei, aurkeztutako eskabidea hobeto balioetsi ahal izateko.

6. Artikulua.- Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioak

1. Dirulaguntza-eremu eta -lerro bakoitzerako eskabide-orri bat bete beharko da, Udalaren eredu ofizialaren arabera. Orri horretan jasoko dira pertsonak edo erakundeak dirulaguntza-lerro bakoitzerako aurkeztutako programak — lerro hori xehatuta egon daitekeen kontzeptuen arabera— eta, betiere, ondorengo artikuluek jasotako mugak errespetatuta.

2. Eskabide-orriarekin batera aurkeztu beharko dira, batetik, dagozkion eranskin gisa datozen agiriak, behar bezala beteta; eta bestetik, adierazitako gainerako dokumentazioa.

3. Eskabide-orrian pertsona edo erakunde eskatzaileak aitortu beharko du ez duela onuradun izateko debekurik (Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua jasotzen ditu debeku horiek), eta orri hori sinatu beharko du. Horrez gain, honako dokumentu hauek aurkeztuko beharko ditu eskatzaileak:

- Dagokion dirulaguntza-lerrora aurkeztutako programa(k), eta memoria bat, hain zuzen ere, diruz lagundutako xedea, proiektua, jarduera edo portaera zehatza aurrera eramateko egingo diren ekintzak jasotzen dituena. Memoria horretan hauexek ere jasoko dira: aurreikusitako diru-sarrera eta gastuen aurrekontua; epeak eta datak; aurreikusitako helburuen deskribapena; metodologia; jarduera zein biztanleria-eremuri zuzenduta

dagoen; eta lortu nahi diren ondorioak. Aipatutako guztia euskarri digitalean (CDa, pendrivea...) aurkeztu beharko da, Udalak emandako ereduaren arabera (II eranskina).

- Programa bakoitzeko aurrekontuaren fitxa, euskarri digitalean (CDa, pendrivea...), Udalaren ereduaren arabera (III eranskina).
- IFZren fotokopia.
- Udalari ez bazaio baimenik ematen eskatzeko Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zerga-egoera zein den egiaztatzeko datuak, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: Gizarte Segurantzarekin zorrik ez dagoela egiaztatzen duen agiria, edota erakunde eskatzaileak bere ardurapeko langilerik ez duela egiaztatzeko agiria. Diruzaintza Orokorrak emango du agiri hori, dagokion urtean bertan. Aipatutako egoerak iraun beharko du eskabide orria aurkezteko unean, eta mantendu egin beharko da dirulaguntza eman, obligazioa aitortu eta ordainketa egiten denean ere. Eta Ogasunaren agiria, zerga-obligazioak egunean daudela egiaztatzeko.

Bi egiaztagiri horien orde, Udalaren ereduaren araberako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da, baldin eta emango den dirulaguntza 3.000 €-tik beherakoa bada.

- Diruz lagunduko den jarduera edo programa irabazi asmorik gabekoa dela erakusten duen erantzukizunpeko aitortpena.
- Udal dirulaguntzak emateko Ordenantzaren 10. artikuluan ezarritako debekurik ez dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko aitortpena.
- Sexu-izaerako deliturik ez izatea jasotzen duen erantzukizunpeko aitortpena.
- Erantzukizunpeko aitortpena: adingabe bat babesgabezia egoeran egon daitekeelako susmoa Udal Gizarte Zerbitzuei jakinarazteko konpromisoa.
- Erantzukizunpeko aitortpena: adin txikikoek eta haiekin harremanetan dauden adin nagusikoek itun digitala sinatzea.
- Hartzekodunaren fitxa (hirugarrenaren fitxa), banku-erakundearen zigiluarekin.
- Diruz lagundutako xedea, proiektua, jarduera edo portaera zehatza aurrera eramateko egingo diren ekintzetan euskararen erabilera zein den adierazten duen fitxa (ekintza bakoitzeko fitxa bat).
- Dirulaguntza-lerro jakin baterako aipatutako beste edozein dokumentu.

4. Horiez gain, Basauriko Udaleko Herritarren Parte-hartze Erakundearen Erregistroan sartu ezin daitezkeen erakundeek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Dagokion erregistroan inskribatuta daudela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.
- Erakundearen estatutuen fotokopia.

5. Eskerak ez baditu betetzen deialdian eta ordenantzan jasotako baldintzak, interesdunari hala jakinaraziko zaio, eskabidea zuzen dezan, gehienez ere, 10 eguneko epean. Era berean, adieraziko zaio horrela egin ezean, eskabidea atzera botako dela, administrazio-prozedura erkideari buruzko legeriak jasotako baldintzetan.

7. Artikulua.- Pertsona edo erakunde onuradunak dirulaguntzaren publizitatea egitea

1. Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 14. artikuluan xedatutakoez gain, pertsona eta erakunde onuradunek ezin dute hizkera eta irudi sexistarik erabili argitalpenetan, batez ere publizitate- eta komunikazio-euskarrietan, eta berdintasunaren, aniztasunaren eta rol aniztasunaren balioak dituen hizkuntza eta irudia sustatu behar dute.

2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren babesean, egin daitezkeen jarduketetan, pertsonak ez dira giza duintasun gutxiago edo gehiago izango sexuaren, sexu orientazioaren edo genero-identitatearen arabera, ezta objektu sexual edo aberastasun-produktu huts gisa ere. Halaber, ezin da zabaldu emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen edukirik. Beraz, estereotipo sexistak saihestuko dira, eta sexu-, gorputz- eta identitate aniztasuna bultzatuko da.

3. Orokorrean, Basauriko Udalaren dirulaguntzak jasotzen dituzten pertsona edo elkarteek, diruz lagundutako jarduera horiei lotuta argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta komunikazio guztiak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko dituzte. Berdin jokatu beharko dute ahozko zein idatzizko agerpen orotan, propagandan ere bai. Testu elebiduna bada, euskarazko bertsioak lehentasuna izango du, testuaren neurriari, ikusgarritasunari edota hizkuntza-ordenari dagokionez. Testuok zuzenak direla bermatzeko, doako itzulpen, zuzenketa eta hizkuntza-aholkularitza zerbitzua eskaintzen du Basauriko Udalak, www.basauri.eus webgunean eta 94 466 63 12 telefono-zenbakian. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafonia bidez emandako mezuak euskaraz edo hizkuntza ofizial bietan izan beharko dira.

Horretarako, berdintasun-atalak dekalogo bat jarri du eskuragarri, publizitatean genero ikuspegia txertatzea errazteko.

4. Dirulaguntza jasotzen duen pertsona edo erakunde orok publiko egin beharko du udal-finantzaketa hori, eta udalaren logotipoa sartu beharko du sortzen dituen material inprimatuetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak, etab.), oroitzapen-plaketan, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan edo idatzizko komunikabideetan argitara ditzakeen iragarkietan.

5. Dagokion atalak aipatutakoa bete egin dela egiaztatu ahal izateko, diruz lagundutako programan/jardueran zehar egindako kartel, ohar, jakinarazpen, eta abarren ale bana aurkeztu beharko dute elkarteek (paperean nahiz eskaneatuta), dirulaguntzaren justifikazioarekin batera, eta euskararen erabileraren gaineko fitxa aurkeztu beharko da jardueran euskararen benetako erabilerarekin.

8. Artikulua.- Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Basauriko Udaletik jaso daitezkeen dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuenekin. Nolanahi ere, dirulaguntzen eta beste iturri batzuen bidez lortutako finantzaketaren zenbatekoa ezin izango da diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa izan.

9. Artikulua.- Dirulaguntzen zenbatekoak, eta zenbateko horiek ordaintzea

1. Oro har, dirulaguntzak aldeztu aurretik ordainduko dira, justifikatu aurretik, emandako dirulaguntzaren guztizko zenbatekoarekin eta inolako bermerik eskatu gabe, dirulaguntzari lotutako jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa.

2. Emandako dirulaguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, Udal honetako Hirugarrenen Erregistroan agertzen den pertsonaren edo erakundearen kontu korrontean.

3. Dirulaguntzaren ordainketa ez da egingo baldin eta pertsona edo erakunde onuradunak dirulaguntzaren bat justifikatzeko badu eta horren justifikazio-epea amaituta bada. Era berean, ez da ordainduko pertsona edo erakundeak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu bazaio.

4. Eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoari buruz, eskatutako kopurua oinarritzat hartu, eta lortutako puntuaren arabera portzentajea aplikatuko zaio. Beraz, 3.000 €-ko zenbatekoa eskatu bada eta 20 puntu lortzen badira, zenbateko horren % 20 da diruz lagunduko dena.

5. Eskabideek dagokion lerroko gehienezko kreditua gaindituz gero:

Lerroan erabilgarri dagoen kopuru osoa banatuko da, behin-behinean, aurkeztutako eskabide guztien artean. Eragiketa horren ondorioz, koefiziente zuzentzaile bat lortuko da, behin-behineko esleipenari aplikatzeko. Adibidez: lerroan 60.000 euro badaude, eta, behin-behinean, 76.178 esleitu badira, koefiziente zuzentzailea 0,7876063 izango da, eta, ondorioz, behin-behinean 750 euro esleitu badira, koefizientea aplikatu eta gero zenbateko hori 590,71 euro izango da.

6. Eskabideek ez badute lerroko gehienezko kreditu erabilgarria gaindituko, lerro horretako zenbateko erabilgarri osoa hainbanatuko da eskatzaileen artean. Hori bai: ezingo da gain finantzaketarik eman, hau da, dirulaguntzak ezingo du eskatutako kopurua gainditi.

7. Dirulaguntzak pilatu eta gain finantzaketa gertatzen bada, Basauriko Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du onuradunak, finantzatutako kopuru osoaren arabera egindako ekarpenaren neurrian.

10. Artikulua.- Dirulaguntzak zuritzea

1. Justifikatzeko epea: emandako dirulaguntzak justifikatzeko epea amaituko da dirulaguntza eman deneko ***hurrengo ekitaldiaren urtarilaren 31n***.

2. Justifikatu beharreko kopurua: Dirulaguntza emateko eskatutako zenbatekoaren % 100 justifikatu beharko da, eta ez soilik Udalak emandakoa.

Beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotako dirulaguntzak dituzten proiektuek Udal honek emandako dirulaguntzari egotzen zaion gastua zehaztu beharko dute.

3. Justifikatzeko sistema: Oro har, norgehiagoka kasuetan, pertsona edo erakunde onuradunak programa bakoitzean egindako gastuaren justifikazio kontua aurkeztu beharko du, ondoren deskribatzen denaren arabera, oinarri zehatzetan beste bitarteko bat ezartzen ez bada.

Justifikazio kontuak honako hauek jasoko ditu:

- a) Programa egikaritzeko aurrera eraman diren jardueren memoria eta beren kostua, egindako gastu bakoitza xehatuta.
- b) Programa egikaritzearen gastu eta diru-sarreraren balantzea.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko, Basauriko Udalaren dirulaguntzaz gain, berezko funtsak edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuk erabili direnean, egiaztatu beharko dira lagundutako jarduera horietarako funtsen zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa.

- c) Programa egikaritzeko aurreikusi den epean egindako gastuak justifikatzen dituzten dokumentuak, eta, horretarako, ezberdinduko dira:
 - Programa egikaritzearekin zerikusi zuzena duten kostuak, osorik egiaztatu beharko direnak, fakturen edo froga balio baliokidea duten dokumentuen bidez, eta merkataritza-lege trafikoan baliozkoak izan beharko dira edo administrazio eraginkortasuna eduki, bai eta haien ordainketa egiaztatzen duten dokumentuak ere.
 - Zeharkako kostuen kasuan, ez da egiaztagiririk aurkeztu beharko, espresuki eskatzen ez bada. Kostu horiek diruz lagundutako jardueraren pertsona edo erakunde onuradunari egotzi beharko zaizkio, arrazoiz dagokion zatian, oro har onartzen diren kontabilitate irizpide eta araei jarraiki, eta, edonola ere, jarduera gauzatzen den aldiari dagozkion kostuen neurrian. Horrela, ez zaio inolaz ere emandako dirulaguntzaren % 8 baino gehiago egotziko, oinarri zehatzek beste portzentaje bat adierazi ezean.

Nolanahi ere, gastuak egiaztatzen dituzten agiriek honako datu hauek jasoko dituzte:

- Onuraduna nor den
- Gastuaren helburuaren deskribapena. Helburuak programaren egikaritzearekin zerikusi zuzena izan beharko du.

Era berean, egiaztagiriak justifikatzen duten programara mugatuta egongo dira.

Gastuak jatorrizko faktura digitalizatuen bidez justifikatu beharko dira, eta, horrekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, non adieraziko baita faktura horiek jatorrizkoen digitalizazioak direla, inolako aldaketarik izan gabe. Hala ere, udalak jatorrizko dokumentuak eskatzeko eskubidea izango du, erkatzeko. Kostua hainbat finantzatzailearen artean hainbanatzen bada, zigilu bat izan beharko dute, Basauriko Udalari esleitutako ehunekoa adierazita.

4. Diruz lagun daitezkeen gastuak: Diruz lagun daitezkeen gastuak dira inolako zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, baldin eta benetan beharrezkoak badira eta diruz lagundutako programak gauzatzeko epean egiten badira.

5. Ez justifikatzea edo justifikazio nahikoa ez ematea: Ez badira dirulaguntzak justifikatzen legeak edo Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 29. artikulua jasotako baldintzetan, edo justifikazioa nahikoa ez bada, Ordenantzak jasotako baldintzetan itzuli beharko dira.

Era berean, jasotako laguntza Udal Kutxetara itzuli beharko da, aipatutako Ordenantzaren 37. artikuluan ezarritako berandutza-interesekin batera.

Alde onuradunak ia osorik gauzaten duenean, eta benetan konpromisoak betetzeko joera frogatzen duenean, erantzukizuna graduatzeko irizpideak aplikatuko zaizkio, itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, eta zenbateko horiek proportzionaltasun printzipioa bete beharko dute.

11. Artikulua.- Erakunde onuradunen betebeharrak

Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 12. artikuluan ezarritakoak, eta bereziki, dirulaguntza eman duen organoaren aurrean, jarduera egin dela, eta dirulaguntzaz gozatzeko ezarritako helburua bete dela egiaztatzea.

Eusko Jaurlaritzak eta Basauriko Udalak Hizkuntza Ofizialen erabileraren gainean indarrean duten araubidearen arabera, diruz lagundutako jarduerak berekin badakar herritarrekin zuzeneko harremana izatea, euskararen erabilera normala bermatuko da, hargatik eragotzi gabe gaztelania erabiltzeko eskubidea. Bestalde, hartzaileak gazteak edo haurrak direnean, irizpide orokorrez gain, honako hau hartu beharko da kontuan: euskararen erabilera sustatzearen, egiten diren ekitaldi edo jardueretan, (hau da euskararen erabilera sustatzeko helburua duten ekitaldi eta jardueretan) onuradunek parte-hartzaileei euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiteko aukera bermatu beharko dietela. Halaber, hezkuntza zentroetan burutu beharreko jarduerak direnean, bi hizkuntza ofizialetan egiteko aukera bermatuko da. Nolanahi ere, euskara-gaztelania hurrenkera izango da.

Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen 26/2015 Legeak xedatutakoa betetzeko, eta adin txikikoekin harremanetan egotea eskatzen duten lanbide, ofizio eta jardueretan aritu ahal izateko betekizun gisa, erantzukizunpeko adierazpena eskatuko zaie Gizarte-Politika Arloko dirulaguntzak eskatzen dituzten elkarte edo erakunde guztiei. Adierazpen horrek jaso beharko du adin txikikoekin harremanetan egongo diren langile guztiek badutela sexu-izaerako deliturik ez izateari buruzko egiaztagiria.

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarako gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoa betetzeko, diruz lagundutako erakundeek Basauriko Udalak indarkeria matxista prebenitzeko egindako lanaren eta dauden udal-baliabideen berri izan beharko dute.

12. Artikulua.- Hirugarrenak azpikontratzea

Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 27. artikuluan ezarritako baldintzetan.

I. ERANSKINA GIZARTE ONGIZATEA

Diru-laguntza lerroa	DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZAK, ERAKUNDE HORIEK GIZARTE-IZAERAKOAK BADIRA ETA GAIXOTASUN KRONIKOEI ARRETA EMATEN BADIETE
Diruz laguntzeko kontzeptua	DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEK ETA GAIXO KRONIKOEK PARTE HARTZEKO JARDUERAK
Aurrekontu partida	041 2313 48199
Partidaren deskribapena	TA, IAGEei. DESGAIUAK
Zenbatekoa	21.748,00 €
Diru-laguntza emateko prozedura	NORGEHIAGOKA

1. Artikulua.- Eremua eta xedea

Basauriko Udaleko Gizarte Politika Arloak, Gizarte Ongizatearen eremuan, deialdia egin du dirulaguntzak emateko, «desgaitasuna duten pertsonen erakundeentzako laguntzak, erakunde horiek gizarte-izaerakoak badira eta gaixotasun kronikoei arreta ematen badiete» izeneko dirulaguntza-lerroa, hain zuzen. Horrela, Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburua lortzen laguntzen du, hots, «persona ezinduen, gaixo kronikoen eta izaera sozialeko beste gaitz batzuk dituzten pertsonen elkarrekin jarduerak sustatzea».

Diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko epea: **2026. urtea.**

2. artikulua.- Erakunde onuradunak

1. Desgaitasuna duten pertsonen eta gaixo kronikoen erakunde edo elkarteei, hain zuzen ere, udalerrikoak direnei edo, udalerrikoak izan gabe, basauriarrak zaintzen dituztenei. Eta gizarte izaerako beste elkarte batzuei.

2. Bazter utzitako erakundeak: Aipatutako alorrean edo adierazitako kolektiboarekin lan egiten ez duen beste edozein elkarte edo erakunde.

3. Artikulua.- Diruz lagun daitekeen jarduerak

1. Basaurin erroldatutako pertsonen parte hartzen duten kirol-, kultura- edo gizarte-alorreko jardueren programak.

2. Bazter utzitakoak:

- Basauriko udal diru-laguntzen deialdiaren barruan, beste diru-laguntza lerro bateko jarduerak bultzatzen dituzten programak.
- Diruz lagundutako jarduera garatzen den lokaletako obrak, erreformak eta alokairu-gastuak.
- Dirulaguntza izendun baten xede diren jarduerak edo programak.

4. Artikulua.- Dokumentazio espezifikoak

Eskabidearekin batera, deialdi honetako xedapen orokorretan eskatutako agiriak aurkeztu beharko dira, bai eta honako hauek ere:

- Jardueren proposamena
- Aurrekontua
- Elkartekide edo elkartean izena emanda daudenen, eta bertako Zuzendaritza Batzordeko kideen egiaztatgaria, erakundearen irizpideen arabera puntuak lortu nahi badira.

5. Artikulua.- Balorazio irizpideak

- A. Dirulaguntzen zenbateko osoa onuradun guztien artean hainbanatuta, formula honi jarraiki: $(D-N/T) \times P$. Hona hemen ikurren azalpena:
- D: aurrekontu-partidaren zenbateko erabilgarria.
 - N: lehenengo aldiz dirulaguntza eskatzen duten erakundeei emandako kopurua.
 - T: eskatzaile guztiek lortutako puntuen batura osoa.
 - P: erakunde onuradunak lortutako puntu-kopurua.
- B. Banakako dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko irizpideak.

IRIZPIDEA		GEHIENEO PUNTUAZIOA
		100 PUNTU
1. ERAKUNDEA		15 puntu
1.1. Antolaketako pertsonen kopurua (sexuaren arabera bereizita)		5 puntu
1etik 10era	5 puntu	
11tik 20ra	3 puntu	
21edo gehiago	1 puntu	

1.2. Basaurin bizi diren bazkideen kopurua (sexuaren arabera bereizita)		10 puntu
1etik 50era	3 puntu	
51tik 100era	7 puntu	
101 edo gehiago	10 puntu	
2. PROGRAMARI DAGOZKION IRIZPIDEAK		52 puntu
2.1. Xedeak		12 puntu
<p>Honako hauek baloratuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Helburuen, jardueren eta emaitzen azalpen-maila, bai eta dirulaguntzaren helburu orokorra eta espezifikoa lortzeko duten koherentzia eta ekarpena ere. - Proiektuaren jarduerak kontzientzia kritikoa eta ekintzarako eta parte-hartzerako gaitasuna sortzea xede duten kolektiboentzat. 		
2.2. Jarduera		15 puntu
Eskaerak zehatz-mehatz azaldu beharko ditu proposatutako jarduerak.		
Balioak sustatzeko ekintzak jasotzen ditu.	4 puntu	
Proiektuak horrelako ekintzen hartzaile ez den publiko bat hartzea.	4 puntu	
Programa/jarduera urte osoan garatzea.	4 puntu	
Laguntza-baliabide teknikoak edo giza baliabideak erabiltzea (interpreteak, laguntzaileak, etab.)	3 puntu	
2.3 Programaren egonkortasuna		5 puntu
Jarduera egonkortzea eta sendotzea udalerrian. Puntu 1 jarduera-urte bakoitzeko.		
2.4. Finantza-ahalegina		10 puntu
Gastu eta diru-sarrera totalen arteko proportzionaltasuna. Balioetsiko dira proposatutako programa edo jarduera aurrera eramateko finantzaketa-iturri eta baliabideak bilatzeko egindako ahaleginak.		
Kaudimena (lortutako baliabide ekonomikoak)	10 puntura arte	
Aurrekontuaren % 1 eta % 20 artean	2 puntu	
Aurrekontuaren % 21 eta % 40 artean	5 puntu	
Aurrekontuaren % 41 eta % 60 artean	8 puntu	

Aurrekontuaren % 60 baino gehiago	10 puntu	
2.5. Aurkeztutako aurreko proiektuaren aurrekontuaren egokitasuna:		10 puntu
Gehienez ere lor daitekeen puntuazioa, zuritu gabeko portzentajearen arabera (zeinaren ondorioz eskatutako azken dirulaguntza, zati batean ala osorik, itzuli behar izan den)		
% 95 baino gehiago zuritu gabe	2 puntu	
% 60 baino gehiago eta % 95 baino gutxiago zuritu gabe	4 puntu	
% 30 baino gehiago eta % 60 baino gutxiago zuritu gabe	6 puntu	
% 8 baino gehiago eta % 30 baino gutxiago zuritu gabe	8 puntu	
≤%8 zuritu gabe	10 puntu	
3. JARDUERA NORI ZUZENDUTA DAGOEN		20 puntu
3.1. Herritarrak erakartzeko eta informatzeko moduak.		
Honako hauek baloratuko dira: hartzaileen artean informazioa jasotzeko eta zabaltzeko proposamenen kalitatea, aniztasuna eta eraginkortasuna.		
Erabilitako komunikazio-kanalak egokiak izatea (baliabide digitalak, sare sozialak, webgunea, prentsa, irratia, kartelak, etab.).	3 puntu	10 puntu
Informazioa eskuragarri izatea kolektibo kalteberentzat edo baliabide digital/elektronikoetara iristeko zailtasunak dituztenentzat.	3 puntu	
Pertsonak erakartzeko ekintza zuzenak: hitzaldiak, tailerrak, hurbileko jarduerak, lankidetzak Basauriko erakunde edo elkarteekin.	4 puntu	
3.2. Basaurin bizi den hartzaileen/erabiltzaileen kopurua		
1etik 50era	1 puntu	10 puntu
51tik 100era	3 puntu	
101etik 150era	5 puntu	
151etik 200era	8 puntu	
200 edo gehiago	10 puntu	
4. HIZKUNTZA		5 puntu

4.1 Hizkuntzaren normalizazioa barne hartzea		5 puntu
Euskararen erabilera parekidea edo lehentasunezkoa jarduerak garatzea.	2 puntu	
Euskara bakarrik erabiltzea jarduerak garatzeko (ahozkoa eta idatzizkoa) Proiektuan definituta agertu behar du.	5 puntu	
5. ANIZTASUNAREN TRATAMENDUA		8 puntu
5.1. Genero ikuspegia barne hartzea		5 puntu
Proiektuak berdintasuna sustatu eta rol sozialak eta estereotipoak ezabatzeko ekimenak aurreikusten ditu. Proiektuan jasota egon behar dira.		
5.2. Kulturen arteko bizikidetzaren sustatzea		3 puntu
Proiektuak zerbitzuak, baliabideak, neurriak edo jarduerak jartzen ditu martxan, lurralde barruko edo kanpoko aniztasun-testuinguruetan kultura-aniztasuna eta/edo elkarrekintza positiboa ikusarazteko.		

II. ERANSKINA ZAHARTZAROA

DIRU-LAGUNTZA LERROA	PERTSONA NAGUSIENTZAKO LAGUNTZAK
DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUA	EREMU SOZIOKULTURALEKO JARDUERAK
Aurrekontu partida	042 2312 48199
Partidaren deskribapena	TA IAGEei. ADINEKOAK
Zenbatekoa	9.880,00 €.
Diru-laguntza emateko prozedura	NORGEHIAGOKA

1. Artikulua.- Eremua eta xedea

Basauriko Udaleko Gizarte Politika Arloak, Gizarte Ongizatearen eremuan, deialdia egin du dirulaguntzak emateko, «persona nagusientzako laguntzak» izeneko dirulaguntza-lerroa, hain zuzen. Horrela, Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburua lortzen laguntzen du, hots, «udalerriko adinekoen elkarteei, adineko pertsonen esparruan gizarte- eta kultura-jarduerak egiten jarraitu ahal izatea».

Diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko epea: **2026. urtea**.

2. Artikulua.- Erakunde onuradunak

1. Udalerriko jubilatuen elkarteak edo, udalerrikoak izan gabe, basauriarrak zaintzen dituzten elkarteak izan daitezke onuradun. Eta gizarte izaerako beste elkarte batzuk.
2. Bazter utzitako erakundeak: Aipatutako alorrean edo adierazitako kolektiboarekin lan egiten ez duen beste edozein elkarte edo erakunde.

3. Artikulua.- Diruz lagun daitekeen jarduera

1. Basaurin erroldatutako pertsonak parte hartzen duten kirol-, kultura- edo gizarte-alorreko jardueren programak.
2. Bazter utzitakoak:
 - Basauriko udal dirulaguntzen deialdiaren barruan, beste dirulaguntza lerro bateko jarduerak bultzatzen dituzten programak.
 - Diruz lagundutako jarduera garatzen den lokaletako obrak, erreformak eta alokairu-gastuak.
 - Dirulaguntza izendun baten xede diren jarduerak edo programak.

4. Artikulua.- Dokumentazio espezifikoa

Eskabidearekin batera, deialdi honetako xedapen orokorretan eskatutako agiriak aurkeztu beharko dira, bai eta honako hauek ere:

- Jardueren proposamena
- Aurrekontua
- Elkartekide edo elkartean izena emanda daudenen, eta bertako Zuzendaritza Batzordeko kideen egiaztatzea, erakundearen irizpideen arabera puntuak lortu nahi badira.

5. Artikulua.- Balorazio irizpideak

- A. Dirulaguntzen zenbateko osoa onuradun guztien artean hainbanatuta, formula honi jarraiki: $(D-N/T) \times P$. Hona hemen ikurren azalpena:
- D: aurrekontu-partidaren zenbateko erabilgarria.
 - N: lehenengo aldiz dirulaguntza eskatzen duten erakundeei emandako kopurua.
 - T: eskatzaile guztiek lortutako puntuen batura osoa.
 - P: erakunde onuradunak lortutako puntu-kopurua.
- B. Banakako diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko irizpideak.

IRIZPIDEA		GEHIENKO PUNTUAZIOA
		100 PUNTU
1. ERAKUNDEA		15 puntu
1.1. Antolaketako pertsonen kopurua (sexuaren arabera berezita)		5 puntu
1etik 5era	1 puntu	
6tik 10era	3 puntu	
10 baino gehiago	5 puntu	
1.2. Basaurin bizi diren bazkideen kopurua (sexuaren arabera berezita)		10 puntu
1etik 100era	3 puntu	
101etik 200era	7 puntu	
200 baino gehiago	10 puntu	
2. PROGRAMARI DAGOZKION IRIZPIDEAK		45 puntu
2.1. Xedeak		11 puntu
Honako hauek baloratuko dira: <ul style="list-style-type: none"> - Helburuen, jardueren eta emaitzen azalpen-maila, bai eta proiektuaren helburu orokorra eta espezifikoa lortzeko duten koherentzia eta ekarpena ere. 		

<p>- Proiektuaren jarduerak kontzientzia kritikoa eta ekintzarako eta parte-hartzerako gaitasuna sortzea xede duten kolektiboentzat.</p>		
<p>2.2. Jarduera</p> <p>Eskaerak zehatz-mehatz azaldu beharko ditu proposatutako jarduerak.</p>		9 puntu
Balioak sustatzeko ekintzak jasotzen ditu.	2 puntu	
Proiektuak horrelako ekintzen hartzaile ez den publiko bat hartzea.	2 puntu	
Programa/jarduera urte osoan garatzea.	3 puntu	
Laguntza-baliabide teknikoak edo giza baliabideak erabiltzea (interpreteak, laguntzaileak, etab.)	2 puntu	
<p>2.3 Programaren egonkortasuna</p> <p>Jarduera egonkortzea eta sendotzea udalerrian. Puntu 1 jarduera-urte bakoitzeko..</p>		5 puntu
<p>2.4. Finantza-ahalegina</p> <p>Gastu eta diru-sarrera totalen arteko proportzionaltasuna. Balioetsiko dira proposatutako programa edo jarduera aurrera eramateko finantzaketa-iturri eta baliabideak bilatzeko egindako ahaleginak.</p>		10 puntu
Kaudimena (lortutako baliabide ekonomikoak)	10 puntura arte	
Aurrekontuaren % 1 eta % 20 artean	2 puntu	
Aurrekontuaren % 21 eta % 40 artean	5 puntu	
Aurrekontuaren % 41 eta % 60 artean	8 puntu	
Aurrekontuaren % 60 baino gehiago	10 puntu	
<p>2.5. Aurkeztutako aurreko proiektuaren aurrekontuaren egokitasuna:</p>		10 puntu
<p>Gehienez ere lor daitekeen puntuazioa, zuritu gabeko portzentajearen arabera (zeinaren ondorioz eskatutako azken dirulaguntza, zati batean ala osorik, itzuli behar izan den)</p>		
% 95 baino gehiago zuritu gabe	2 puntu	
% 60 baino gehiago eta % 95 baino gutxiago zuritu gabe	4 puntu	
% 30 baino gehiago eta % 60 baino gutxiago zuritu gabe	6 puntu	
% 8 baino gehiago eta % 30 baino gutxiago zuritu gabe	8 puntu	

≤%8 zuritu gabe	10 puntu	
3. JARDUERA NORI ZUZENDUTA DAGOEN		15 puntu
3.1. Herritarrak erakartzeko eta informatzeko moduak. Honako hauek baloratuko dira: hartzaileren artean informazioa jasotzeko eta zabaltzeko proposamenen kalitatea, aniztasuna eta eraginkortasuna.		10 puntu
Erabilitako komunikazio-kanalak egokiak izatea (baliabide digitalak, sare sozialak, webgunea, prentsa, irratia, kartelak, etab.).	3 puntu	
Informazioa eskuragarri izatea kolektibo kalteberentzat edo baliabide digital/elektronikoetara iristeko zailtasunak dituztenentzat.	3 puntu	
Pertsonak erakartzeko ekintza zuzenak: hitzaldiak, tailerrak, hurbileko jarduerak, etab.	4 puntu	
3.2. Hartzaileren / erabiltzaileen gutxi gorabeherako kopurua		5 puntu
1etik 150era	1 puntu	
151etik 250era	3 puntu	
300 baino gehiago	5 puntu	
4. HIZKUNTZA		5 puntu
Hizkuntzaren normalizazioa barne hartzea		5 puntu
Euskararen erabilera parekidea edo lehentasunezkoa jarduerak garatzean	2 puntu	
Euskara bakarrik erabiltzea jarduerak garatzeko (ahozkoa eta idatzizkoa) Proiektuan definituta agertu behar du.	5 puntu	
5. ANIZTASUNAREN TRATAMENDUA		8 puntu
5.1. Genero ikuspegia barne hartzea		5 puntu
Jarduerak adineko emakumeek egindako lana aintzatestea eta gizarteari egiten dizkioten ekarpenak ikusaraztea sustatzen dute. Proiektuan jasota egon behar da.		
5.2. Kulturen arteko bizikidetzaren sustatzea		3 puntu
Kultura-aniztasuna eta migrazioekin berariaz lotutako alderdiak kontuan hartzen dituzten programak, horiek ikusarazteko, berdintasuna sustatzeko eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko helburu eta ekintzekin.		
6. LANKIDETZA UDAL JARDUERA EDO ELKARTEEKIN		12 puntu

Partaidetza edo lankidetzaren bakoitzeko, 3 puntu.	12 puntu
--	-----------------